

DIRU ITURRIAK

Gure aplikazioa guztiz dohainik da baina hainbat gehigarri nahi izatekotan, bertsio premium bat eskuratu ahal da prezio murriztu bat ordainduz. Bertsio premium honekin, agertzen diren iragarki guztiak ezabatu ahal dira, bezeroari esperientzia askoz atseginagoa eskainiz. Dena den, gure helburuetako bat, denda txikien bulkada sustatzea da, eta horretarako, gure dendan haien produktuen deskontuak egingo genituzke. Orekatzeko, haien propaganda egingo genuke gure app-ean eta foroan.

Hiru finantziario iturri izango ditugu:

Kanpo finantziarioa: Bankuei kreditu txikiak eskatu, batez ere proiektuarekin hasteko.

Barne finantziarioa: Bazkideek egiten duten ekarpen ekonomikoa. Bazkide izateko gure web orrialdean abonatu egin beharko zinateke.

Aplikazioak ematen dizkigun irabaziak:
Gure app-ean jartzen dugun publizitatearen bidez, hau da, enpresa horiek publizitatea ematearen truke ordaintzen digutena eta prezio txiki bat ordainduz lor dezakezun premium bertsioan irabazitakoa.

